*Beste urte batean ere LAUDIO IKASTOLAKO HEZKUNTZA JARDUNALDIAK ospatzera goaz. XIV. edizio honetan 0-18 urte bitartean seme-alabak dituzuenoi, baita irakasle, ikasle eta beste profesionalei jardunaldiak zabaltzen dizkizuegu.*

*Guztiontzat interesgarriak izan daitezkeen gaien inguruan hitz egiteko elkartzea proposatzen dizuegu; hausnarketak sustatzeko gaian adituak diren pertsonekin kontatuko dugu, eta beharrezkoa balitz, norberak bere eguneroko bizitzara, lanera eta familia esparrura eraman ahal izango dituen estrategiak ezartzen laguntzeko.*

*Aurtengoan adin ezberdinetara egokitutako lau saio eskainiko ditugu, bi euskaraz, bat elebiduna eta beste bat gazteleraz.*

*Azken urteetako esperientziari jarraipena emanez, Herriko Plazako Aretoan ospatuko ditugu; horregatik, hain zuzen ere, jardunaldi hauetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu heziketa esparruan murgilduta zaudetenoi eta interesa izan dezakezuen guztioi, ikastolako partaide izan ala ez.*

*ANIMA ZAITEZ!*

*Otro año más vamos a celebrar las JORNADAS EDUCATIVAS DE LAUDIO IKASTOLA. En esta edición, la decimocuarta, os invitamos a participar a todas las familias con hijos/as de 0 a 18 años, también al profesorado, alumnado y profesionales de nuestro entorno.*

*Os proponemos reunirnos para charlar sobre temas que a buen seguro serán del interés de todos/as; contaremos con especialistas en los diferentes temas que señalamos, intentando fomentar una reflexión que pueda valernos para establecer estrategias que podamos aplicar en la vida diaria de cada uno, el trabajo y también en el ámbito de la familia.*

*Este año ofreceremos cuatro sesiones adaptadas a los diferentes tramos de edades, dos serán en euskera, una bilingüe y otra en castellano.*

*Continuando con la experiencia de los últimos años, celebraremos las jornadas en la sala multiusos del Ayuntamiento de Laudio, en la Herriko Plaza; por eso queremos extender esta invitación a todas las personas interesadas en el ámbito de la educación seáis o no miembros de la Ikastola.*

*ANIMA ZAITEZ!*

LAUDIO ikastola

94 672 67 37 • laudio@ikastola.net • www.laudioikastola.net

kutxabank
Caja Vital Vital Kutxa

LAUDIO ikastola

# XIV. HEZKUNTZA JARDUNALDIAK
## *XIV jornadas educativas*

kutxabank
Caja Vital Vital Kutxa
Laudio Llodio



**Urtarrilaren 20, 21, 22 eta 23an**
**ordua:17:30ean • Laudioko Udaleko gela balioanitzean, Herriko plazan • 0-18 urteko ikasleen gurasoei eta heziketan aritzen direnei irekiak**

***20, 21, 22 y 23 de enero • hora: 17:30***
*• Sala multiusos del Ayuntamiento de Laudio, Herriko plaza*
*• Abiertas a padres y madres de alumnado de 0 a 18 años y profesionales de la educación*

# 20an Jolastu gabe hilko nintzateke.

astelehena

## Pikler ikuspegiaren oinarriak

euskaraz

***Haurtzaroaren ikuspegi desberdin batetik abiatuta, haurren izaeraren garapen harmoniatsu eta orekatua sustatzeko ikuspegia, familiek beraien egunerokotasunean kontuan izan dezaten.***

HIZLARIA
*Txusma Azkona*

Lizarrako ARIETA udal haur eskolako zuzendaria. Haur Hezkuntzako irakaslea. In-fan-cia aldizkariko laguntzailea.Euskal Herriko Pikler-Loczy elkarteko lehendakaria

# 21ean Gazteen aisialdia: garapen pertsonalerako bide eta alternatiba

asteartea/
martes

## Ocio juvenil: una opción para el desarrollo personal

en castellano

***Egungo gazteen aisialdi eredua gizartearen isla bat ote da? Gazteen osasun ohiturak eta aisialdirako aukera desberdinek, egungo gizarteak indartzen dituen ohiturekin lotura al dute? Nola egin diezaioke aurre gazte batek "taldearen" presioari?***

*¿Es el modelo de tiempo libre de la juventud un reflejo de la sociedad? ¿Están unidas las diferentes opciones de tiempo libre y los hábitos que refuerza la sociedad actual? ¿Cómo puede una persona joven hacer frente a la presión de grupo?*

HIZLARIA/PONENTE
*Idurre Lazkano*

Aisiazko Ikaskuntzen Institutuko ikertzailea. Pedagogian lizentziatua eta Aisia eta Giza-garapenean doktorea.

# 22an Nire etorkizunerako ibilbidearen protagonista naiz

asteazkena/
miércoles

## Yo decido mi futuro profesional

elebiduna/
bilingüe

***Zeintzuk dira ikaskuntza prozesuan jartzen ditugun aurreikuspenak? Errekonozimendua, erantzukizuna, emaitzak, zorroztasuna, balioak...? Nola prestatzen gara etorkizuneko erronkei aurre egiteko? Tituluez eta ezagutza teorikoez gain, lan mundurako prestakuntza egokia eskaini behar dute hezkuntza erakundeek; zer eskatzen die egungo gizarteak gure gazteei? Etengabean aldatzen ari den gizartean, gazteek zer baloratu behar dute nor bere bidea egiten protagonista izan daitezen?***

*¿Cuáles son las expectativas que ponemos en el proceso educativo? ¿Reconocimiento, responsabilidad, resultados, rigurosidad, valores...? ¿Cómo nos prepararamos para hacer frente a los retos del futuro? Además de títulos y conocimientos teóricos, las instituciones educativas deben proporcionar formación para el mundo laboral, ¿qué ofrece la sociedad actual a la juventud? ¿Qué deben valorar las personas jóvenes para sentirse protagonistas de su propio itinerario en una sociedad en permanente cambio?*

HIZLARIA/PONENTE
*Leire Uriarte*

Mondragon Unibertsitatean, Hezkuntza eta Gizarte Fakultateko kidea. Lanki elkarteko kidea.

# 23an Ez dut garrasirik egin nahi!

osteguna

euskaraz

***Heldu eta umeen eguneroko erlazioan sortzen dira gatazkak. Harremanak ez okertzeko, nola kudeatu behar dugu helduok gure amorrua? Zigorra al da gure tresna eta aukera bakarra? Hainbat teknika aztertu eta praktikan jartzen saiatuko gara, gure emozioak nola bideratu baita gakoa.***

HIZLARIA
*Nerea Mendizabal*

Psikopedagogoa eta Gizarte hezitzailea. Azken 10 urtetan haur, guraso eta hezitzaileei prebentzio, heziketa, haur masaje eta komunikazio ikastaro, hitzaldi eta tailerrak dinamizatzen.